## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ARABAKO CAMPUSAREN INIZIA ENPRESA-MINTEGIAREN BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO ARAUTEGIA

## NORMATIVA DE FUNCIONAMIENTO INTERNO DEL VIVERO DE EMPRESAS INIZIA ENPRESA-MINTEGIA DEL CAMPUS DE ÁLAVA DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATETA

UPV/EHUren Arabako Campuseko *INIZIA Enpresa Mintegia* sortu da unibertsitatearen eskaera bati erantzuteko. Horren arabera, ezagutza-iturrietatik gertu egongo den egitura bat behar zen, eta, adi berean, egitura horrek aukera eman behar zuen unibertsitateko kideek sortutako proiektuak enpresen errealitatera hurbiltzeko.

El *Vivero de Empresas INIZIA* del Campus de Álava de la UPV/EHU, surge como respuesta a la demanda percibida desde el ámbito universitario para dar cobertura a la necesidad de disponer de una estructura cercana a las fuentes del conocimiento, y que a su vez, permita trasladar a la realidad empresarial aquellos proyectos surgidos desde la comunidad universitaria.

Horren asmoa da; batetik, berrikuntza-sistemaren garapenari bultzada bat ematea, enpresen eta unibertsitatearen arteko lankidetza-maila areagotuta, eta, bestetik, berrikuntza- eta/edo teknologia-maila handiko enpresa-ekimenei euskarri bat eskaintzea, ezagutzaren sortzen den lekutik eta UPV/EHUren Arabako Campusean ordezkatutako jakintza arloen *know-how* ikertzailetik gertu kokatzeko aukera emanez.

Se pretende así, contribuir al desarrollo del sistema de innovación en la medida en que incrementa el grado de cooperación universidad-empresa, y a proporcionar un soporte a aquellas iniciativas empresariales caracterizadas por su alto componente innovador y/o tecnológico, permitiendo su ubicación en un entorno cercano a la generación de conocimiento y al know-how de los distintos ámbitos de conocimiento representados en el Campus de Álava de la UPV/EHU.

Beraz, *INIZIA Enpresa Mintegiak* inguruko baliabideei etekina ateratzea ahalbidetuko du, eta sinergiak sortuko ditu, enpresen arloa eta arlo akademikoa eta teknologikoa hurbiltzearen ondorioz.

El *Vivero de Empresas INIZIA* permitirá por tanto, aprovechar las capacidades del entorno, generando sinergias derivadas de aproximar el ámbito académico, tecnológico y el empresarial.

### 1.- KOKALEKUA, IZAERA JURIDIKOA ETA EGITURA.

### 1.- UBICACIÓN, NATURALEZA JURÍDICA Y ESTRUCTURA

#### 1.1.- Kokalekua

Mintegia honako bi helbidetan kokatuta dago:
Lascaray Ikergunean: Arabako Campusa, Miguel de Unamuno etorbidea, 3. zk., Gasteiz.
Gasteizko Ingeniaritza Unibertsitate Eskolan: Nieves Cano kalea 12, 01006, Gasteiz helbidean kokatzen dena.

#### 1.1.- Ubicación

El Vivero se ubica en:

- El Centro de Investigación Lascaray Ikergunea, situado a Avda. Miguel de Unamuno, 3, 01006 de Vitoria-Gasteiz.
- La Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz, situada en Nieves Cano 12, 01006 de Vitoria-Gasteiz.

#### 1.2 Izaera juridikoa

[illegible]

#### 1.2 Naturaleza jurídica

El Vivero carece de personalidad jurídica propia, si bien, el Centro de Investigación Lascaray Ikergunea y la Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-

Unibertsitate Eskola UPV/EHUren eraikinak dira, eta jabari publikoko ondasuntzat hartzen da unibertsitateko zerbitzu publikoari atxikita dagoelako; hortaz, ondasun mota horientzat ezarritako legediaren baldintzapean dago.

Gasteiz donde está ubicado son edificios propiedad de la UPV/EHU calificados como bienes de dominio público por hallarse afectos al servicio público universitario, y por tanto, sujetos a la legislación establecida para este tipo de bienes.

Era berean, arautegi honek besterik ezarri ezean, Unibertsitatearen arautegia aplikatuko zaio.

Asimismo, y en defecto de lo previsto en este reglamento, al Vivero le será de aplicación la normativa propia de la Universidad.

**3.3.- Egitura**

**3.3.- Estructura**

Mintegia Arabako Campusaren bi eraikinetan dago:

El Vivero se encuentra en dos edificios del campus de Álava:

***3.3.1.- Lascaray Ikergunea***:
Mintegiak guztira 136,81 metro koadroko azalera eraikia du, honela banatuta: hiru bulego itxi, bulego ireki bat, ***ekintzaile eremua*** eta igarolekua.

***3.3.1.- Centro de investigación Lascaray Ikergunea:***
El Vivero dispone de una superficie construida total de 136,81 metros cuadrados, distribuidos en tres despachos cerrados, un despacho abierto, un espacio denominado la zona de emprendedores, y en zona de paso.

Hauek dira eremu bakoitzaren azalerak:

1. Bulego itxia: 20,18 m²
2. Bulego itxia: 28,49 m²
3. Bulego itxia: 19,24 m²

Bulego irekia: 27,56 m²
Ekintzaileen eremua:13,78 m²
Igarolekua: 27,56 m²

Las superficies de los diferentes espacios son:

- Despacho cerrado 1: 20,18 m²
- Despacho cerrado 2: 28,49 m²
- Despacho cerrado 3: 19,24 m²
- Despacho abierto: 27,56 m²
- Zona de emprendedores: 13,78 m²
- Zona de paso: 27,56 m²

**Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola:**

**Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz:**

Haren azalera eraiki osoa 50,55 metro koadrokoa da, honela banatuta: bi bulego itxi eta ekintzaileen eremu izeneko espazio bat.

Dispone de una superficie construida total de 50,55 metros cuadrados, distribuidos en dos despachos cerrados y en un espacio denominado zona de emprendedores.

Espazioen azalerak honako hauek dira:

1. bulego itxia: 11,52 m²
2. bulego itxia: 11,90 m²

Ekintzaileen eremua: 27,13 m²

Las superficies de los diferentes espacios son:

- Despacho cerrado 1: 11,52 m²
- Despacho cerrado 2: 11,90 m²
- Zona de emprendedores: 27,13 m²

Ekintzaileen eremua leku irekia da, altzariekin bereizitakoa, eta inkubazio aurreko fasean dauden sustatzaileak barne har ditzake.

En ambos casos la zona de emprendimiento es un espacio diáfano con separación mediante mobiliario, y que puede albergar a personas promotoras en fase de preincubación.

Centro de investigaicón Lascaray ikergunea

Centro de investigaicón Lascaray ikergunea:

Mintegiaren planoa: I.a eranskina

- Plano del Vivero: Anexo I.a

*Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola:*

Mintegiaren planoa: I.b eranskina

**Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz:**

- Plano del Vivero: Anexo I.b

**2. XEDEA ETA ZERBITZUAK**

**2.1 - Xedea**

Mintegiaren xedea da enpresa-ekimen berriak sortzea eta errotzea, ezagutza sortuko duten eta beren izaera berritzaile eta/edo teknologiko nabarmena duten enpresa-ekimenak kokatzeko. Hori lortzeko, azpiegiturak, zerbitzu komunak, oinarrizko ekipamenduak eta laguntza-zerbitzuak eskainiko dira.

**2.2 Zerbitzuak:**

Xede hori lortzeko, Mintegiak honako zerbitzu hauek eskainiko ditu:

**2.2.1.- Lascaray Ikergunea:**

Hiru bulego itxi eta bat irekia; horietan oinarrizko altzariak (bulegoko mahaiak, aulkiak eta armairuak) jarrita daude, baita argi, elektrizitate, berokuntza, ahots eta datu azpiegiturak ere.

"Ekintzaileen eremua" izeneko gune bat; oinarrizko altzariak eta argi, elektrizitate, berokuntza, ahots eta datu azpiegiturak ditu.

**2.2.2.- Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola:**

Bi bulego itxi, oinarrizko altzariak (mahaiak, aulkiak eta bulegoetako armairuak) eta argiztapen, elektrizitate, berokuntza, ahots eta datu azpiegiturak dituztenak.

"Ekintzaileen eremu" deritzon espazio bat, oinarrizko altzariak eta argiztapen, elektrizitate, berokuntza, ahots eta datu azpiegiturak dituena.

**2. OBJETO Y SERVICIOS**

**2.1 Objeto**

El objeto del Vivero es la generación y consolidación de nuevas iniciativas empresariales a través de la dotación de infraestructura, servicios comunes, equipamiento básico, y servicios de apoyo, para la ubicación de proyectos empresariales generadores de conocimiento que se distingan por su marcado carácter innovador y/o tecnológico.

**2.2 Servicios**

Así, en el ámbito de su objeto, el Vivero ofrece los siguientes servicios:

**2.2.1.- Centro de investigación Lascaray Ikergunea:**

a) Tres despachos cerrados y uno abierto, equipados con mobiliario básico (mesas, sillas y armarios de oficina) y dotados de infraestructuras de iluminación, electricidad, calefacción, voz y datos.

b) Un espacio denominado "*Zona de emprendedores*", equipado con mobiliario básico y dotado de infraestructuras de iluminación, electricidad, calefacción, voz y datos.

**2.2.2.- Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz:**

a) Dos despachos cerrados equipados con mobiliario básico (mesas, sillas y armarios de oficina) y dotados de infraestructuras de iluminación, electricidad, calefacción, voz y datos.

b) Un espacio denominado "Zona de emprendedores", equipado con mobiliario básico y dotado de infraestructuras de iluminación, electricidad, calefacción, voz y datos.

2.2.3.- Ondasun eta/edo zerbitzu hauek erabiltzeko aukera:

Igarolekua

Posta zerbitzua, Ikergunean ezarritako sistemarekin bat datorrena.

Eraikinaren segurtasuna eta zaintza, UPV/EHUk ezarritakoaren araberakoa.

Ohiko garbiketa zerbitzua, UPV/EHUk ezarritakoaren araberakoa.

Lascaray Ikerguneko eta Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako bilkura eremu komunak erabiltzeko aukera, Ikergunean horretarako ezarritako erreserba araubideari jarraituz.

2.2.3.- En todos los casos, tendrán el Uso de los siguientes bienes y/o servicios:

- Zona de paso
- Servicio de correos, de acuerdo con el sistema establecido en el Centro.
- Seguridad y vigilancia del edificio, de acuerdo por lo establecido por la UPV/EHU.
- Servicio de limpieza ordinaria, de acuerdo por lo establecido por la UPV/EHU.

  Uso de espacios comunes de reunión en el Centro de Investigación Lascaray Ikergunea y en la Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz, de acuerdo al régimen de reservas establecido en cada edificio

## 3.- ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA

Mintegira sartzeko ohiko ordutegia honako hau izango da: astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 21:00etara. Beste ordutegi batean sartu nahi izanez gero, Ikergunearen arautegia bete beharko da.

Mintegiak UPV/EHUren Arabako Campuserako eta, zehazki, Lascaray Ikergunerako eta Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolarako urtero ezarritako egutegia izango du.

## 3.- HORARIO Y CALENDARIO

El horario ordinario de acceso al Vivero es de lunes a viernes de 08:00 a 21:00 horas. El acceso al mismo en otro horario deberá ajustarse a la normativa de cada Centro.

El calendario del Vivero será el establecido con carácter anual para el Campus de Álava de la UPV/EHU, y en particular para el Centro de Investigación Lascaray Ikergunea y para la Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz.

## 4.- KONTROLA ETA SARTZEKO TXARTELAK

### 4.1 Sarreren kontrola

Mintegira sartzen edo bertan dagoen pertsona orok eskaera egingo dio langile arduradunari; identifikatu egingo da, eta bere presentzia justifikatu beharko du, nahitaez.

### 4.2 Sartzeko txartelak

## 4.- CONTROL Y TARJETAS DE ACCESO

### 4.1 Control de acceso

Cualquier persona que acceda o permanezca en el Vivero estará obligada, a petición del personal responsable, a identificarse y justificar su presencia en el mismo.

### 4.2. Tarjetas de acceso

Enpresa baimendunaren langileak esleitutako eremuetara sartu ahal izateko, UPV/EHUk berariaz sortuko eta banatuko ditu unibertsitate-txartel pertsonalak. Nolanahi ere, segurtasun-arrazoiak eta larrialdi-egoerak direla eta, UPV/EHUk eremu horietara sartzeko txartel nagusia izango du.

Para el acceso del personal de la empresa autorizada a los espacios asignados, la UPV/EHU expedirá y configurará al efecto las correspondientes tarjetas personales universitarias. No obstante, por razones de seguridad y en caso de emergencia, la UPV/EHU dispondrá de la correspondiente tarjeta maestra de acceso a dichos espacios.

## 5.- MINTEGIKO EREMUEN ERABILERA

Enpresa baimendunak bete egin beharko du barne-funtzionamendurako arautegi honek ezarritakoa, baita aplikagarri zaion gainerako unibertsitate-arautegiak ezarritakoa ere.

Zehazki, behar adinako arretaz zainduko eta erabiliko ditu esleitutako instalazioak eta ekipamendua, eta bere jarduerak ez dizkie eragozpenak edo deserosotasunak eragingo Ikerguneko edo mintegiko gainerako erabiltzaileei.

Bulegoak eta *ekintzaileen eremua:*

Baimendutako enpresak esleitu dioten eremua hasiera batean esleipenaren helburu den proiektua edo jarduera gauzatzeko erabili beharko du, etenik gabe eta era jarraituan. Jarduera eten egin dela edo jarraitua ez dela ulertuko da justifikatutako arrazoirik gabe hiru hilabete baino gehiagoko aldi batez gelditu edo bertan behera uzten bada.

Esleitutako eremua, apaingarriek, osagarriek eta ekipamenduak ondo funtzionatu eta itxura ona izan beharko dute denbora guztian.

Igarolekua:

Enpresa baimenduak, igarolekua erabiliko du, eremuaren xedeari lotuta,; betiere, gainerako erabiltzaileen eskubideak eta eremuen funtzionamendu egokia kaltetu gabe, eta Ikerguneak ezarritako erabilera irizpideak errespetatuta.

## 5.- USO DE LOS ESPACIOS DEL VIVERO

La empresa autorizada deberá estar a lo dispuesto en la presente normativa de funcionamiento interno, así como en el resto de normativa universitaria que le pueda ser de aplicación.

En concreto, deberá conservar y utilizar con la debida diligencia las instalaciones y equipamiento que se le asigne, así como desarrollar su actividad sin ocasionar molestias o incomodidades al resto de usuarios del vivero o del Centro.

Despachos y *zona de emprendedores:*

- La empresa autorizada está obligada a destinar el espacio asignado al desarrollo del proyecto o actividad para la cual le ha sido asignado, y a hacerlo de forma continua y permanente. Se considera que la actividad deja de ser continua y permanente, cuando la misma, sin causa justificada alguna, se interrumpe o cesa por un periodo de más de tres meses.
- El espacio asignado, su decorado, accesorios, y equipamiento deberán mantenerse en todo momento en buen estado de funcionamiento y presentación.

Zona de paso:

- La empresa autorizada hará uso de la zona de paso conforme a su destino, sin que ello suponga menoscabo de los derechos de los restantes usuarios y de su buen funcionamiento, de acuerdo siempre a los criterios de utilización establecidos por el Centro.

## 6.- GARBIKETA ETA MANTENTZE-LANA

## 6.- LIMPIEZA Y MANTENIMIENTO

UPV/EHUren kargura egingo dira instalazio nagusien eta oinarrizkoen mantentze-lanak eta garbiketa, bai banaka erabiltzeko eremuena bai denok erabiltzeko eremuena.

Nolanahi ere, enpresa baimendunak eginiko lanak, jarduerak edo ekimenak direla eta, Unibertsitateak kostu gehigarririk egin gabe eskain ezin dezakeen aparteko garbiketa edo garbiketa espezializatua egin behar bada, enpresa baimendunak hartuko du bere gain.

Era berean, Minegiaren mantentze-lana guztiz egokia izan dadin, enpresa baimendunek berehala jakinaraziko dizkiote Ikastegiko atezaintzari edo horretarako izendatutako pertsonari instalazioetan izandako matxurak edo akatsak.

La limpieza ordinaria, tanto de los espacios de uso individualizado como de las zonas comunes, correrá a cargo de la UPV/EHU, al igual que el mantenimiento de las instalaciones generales y básicas.

No obstante, en las ocasiones en las que por actos, trabajos o actividades realizadas por la empresa autorizada, fuera precisa una limpieza especializada o extra que no pudiera ser ofrecida por la Universidad sin incurrir en un coste adicional, será realizada por ésta con cargo a la empresa autorizada.

Asimismo, para el perfecto mantenimiento del Vivero, las empresas autorizadas deberán comunicar a la conserjería del Centro o a la persona designada al efecto, cualquier avería o deficiencia que se produzca en las mismas tan pronto como se conozca.

## 7.- IRUDIA ETA ERROTULAZIOA

Mintegiaren irudiak multzo harmoniatsu baten itxura eskatzen du, eta enpresa baimendunek horren eraketa harmonikoa eta estetikoa errespetatu beharko dute.

Era berean, Unibertsitateak aldez aurretik onartu beharko du berak baimendutakoez bestelako errotulu, kartel, bereizgarri edo publizitate-ikurrak jartzea; horrela izan ezean, berehala kenduko dira, erabiltzaile arduradunaren kargura.

## 7.- IMAGEN Y ROTULACIÓN

La imagen del Vivero exige un aspecto de conjunto armonioso, debiendo ser respetada por las empresas autorizadas la concepción armónica y estética del mismo.

Asimismo, la colocación de rótulos, carteles, distintivos o de cualquier otro cartel o señal publicitaria distintos a los permitidos por la Universidad, deberán ser previamente aprobados por aquella, procediéndose en caso contrario a su retirada de forma inmediata, con cargo al usuario responsable.

## 8.- KONPONKETAK, OBRAK ETA ALDAKETAK

Guztiz debekatuta dago esleitutako eremuan obra edo konponketaren bat egitea aldez aurretik UPV/EHUren berariazko baimen idatzia izan gabe, nahiz eta hobekuntzak izan edo aldaketarik ez eragin eremuaren egituran, eraketan edo haren zerbitzu eta instalazio orokorretan.

Obrak, hala behar izanez gero, enpresa baimenduaren kontura egingo dira, eta horiek egiteko beharrezkoa izango da aldez aurretik Arabako Campusaren Gerenteordetzaren oniritzia izatea. Horren harira, Unibertsitateak

## 8.- REPARACIONES, OBRAS Y MODIFICACIONES

Queda totalmente prohibida la realización de cualquier tipo de obra o reparación en el espacio asignado sin el consentimiento previo, expreso y escrito por parte de la UPV/EHU, aun cuando se trate de mejoras o no impliquen modificación de las estructuras o de la configuración del mismo o de sus servicios e instalaciones generales.

Las obras, en su caso, se realizarán a costa de la empresa autorizada, previa conformidad de la Vicegerencia de Campus de Álava. Para ello, la Universidad podrá exigirle a la misma la presentación de un proyecto técnico de ejecución de las obras.

obrak egiteko proiektu tekniko bat aurkezteko eska diezaioke enpresari.

Nolanahi ere, esleitutako eremuan eginiko edozein eratako obrak Unibertsitatearentzat geratuko dira beti, erabilera-baimena amaitzean, eta ez da erreklamatzeko edo diru-ekarpena jasotzeko eskubiderik sortuko. Salbuespen gisa, UPV/EHUk aukera izango du eremua esleitutako egoera berean itzultzea eskatzeko, eta, hala eginez gero, enpresa baimendunak beharrezkoak diren gastuak egin beharko ditu eremua esleitutako egoera berean itzultzeko.

En todo caso, las obras de cualquier clase que se efectúen en el espacio asignado, quedarán siempre en beneficio de la Universidad al extinguirse la autorización de uso, sin generar derecho a reclamación o percepción económica alguna, salvo que la UPV/EHU, a su exclusiva opción, exija que se devuelva el espacio en el mismo estado en que se entregó, en cuyo caso serán por cuenta de la empresa autorizada los gastos precisos para la adecuación del espacio asignado a su estado original.

UPV/EHUren eskumenekoak izango dira instalazio orokorrak zaintzeko eta/edo konpontzeko lanak; dena den, enpresak bere gain hartuko ditu erabilera okerraren eraginez izandako kalteen eta matxuren konponketa. Horretarako, enpresa baimendunak higiezina, instalazioak eta elementu komunak mantentzeko behar diren konponketak onartuko ditu, eta hobekuntza-obrak egiten utziko du, baldin eta enpresaren jarduerari eta erabiltzeko eskubideari kalterik egiten ez badiote. Horrelakoetan, UPV/EHUk garaiz ohartaraziko dio enpresari, eta egin beharreko jarduera zehaztuko du.

Las obras de reparación y/o conservación de las instalaciones generales serán competencia de la UPV/EHU, si bien las realizadas como consecuencia de un mal uso, o de daños y desperfectos ocasionados por la empresa autorizada, serán a costa de ésta. Para ello, la autorizada consentirá las reparaciones que exija el mantenimiento del inmueble, instalaciones y elementos comunes y permitirá las obras de mejora que no perjudiquen el derecho de uso ni la actividad ejercida por la empresa. En estos casos, la UPV/EHU avisará con un margen de tiempo suficiente, especificando la actuación que se vaya a realizar.

Era berean, berariaz debekatzen zaio enpresa baimenduari esleitutako eremuaren instalazioak aldatzea edo ordezkatzea, Arabako Campuseko Gerenteordetzaren berariazko baimena izan gabe. Era berean, ezin izango ditu jarri motorrak, makinak, instalazioak, etab, baldin eta horien bidez Mintegiaren edo Ikergunearen hornidurak, publikoak nahiz pribatuak, aldatzen edo ordezkatzen badira.

Asimismo, se prohíbe expresamente a la empresa autorizada la sustitución o modificación de las instalaciones del espacio asignado sin permiso expreso de la Vicegerencia del Campus de Álava; tampoco podrá instalar motores, máquinas, instalaciones, etc. que alteren, modifiquen o sustituyan a los suministros, públicos o privados, previstos para el Vivero o el Centro.

## 9.- INSTALAZIOEN ERABILERAREN ERANTZUKIZUNA

Elementu komunetan eta norberari nahiz beste erabiltzaile batzuei esleitutako eremuetan, erabilerak eta jardueraren garapenak pertsonei edo ondasunei kalte-galerak eraginez gero, enpresa baimenduna izango da horien erantzulea.

UPV/EHUk ez du erantzukizunik izango Unibertsitatekoak ez diren pertsonek enpresa baimendunen ondasunen edo tresnen aurka

## 9.- RESPONSABILIDAD DE USO DE LAS INSTALACIONES

La empresa autorizada deberá responder de los daños y perjuicios que, con ocasión del uso de los espacios asignados y del desarrollo de su actividad ocasione tanto a personas como a bienes en los elementos comunes, en el propio espacio asignado o en los de los otros usuarios.

La UPV/EHU no se hará responsable de los daños, perjuicios o atentados contra la propiedad (incluidos robos) que pudieran cometer personas

egin ditzaketen kalteen, galeren edo jabetzaren aurkako erasoen aurrean (lapurretak barne).
Horretarako, enpresek nahitaez aseguratu beharko dituzte jarduerari atxikitako higiezinak, eta erantzukizun zibileko aseguru bat hitzartu beharko dute, instalazioei, elementu komunei edo hirugarrenei eragin diezaieketen kalteak estaltzeko. Era berean, Unibertsitateari eman beharko dizkiote aseguru-poliza horien eta indarrean daudela erakusteko ziurtagirien kopia bana.

ajenas a la Universidad contra los enseres, bienes o efectos de las empresas autorizadas.
A tal efecto, éstas estarán obligadas a asegurar el inmovilizado afecto a la actividad, así como a concertar un seguro de responsabilidad civil por la cobertura de daños que puedan ocasionarse a las instalaciones, elementos comunes o terceros, debiendo entregar a la Universidad copia de dichas pólizas de seguro y de los recibos acreditativos de su vigencia.

## 10.- SEGURTASUNA ETA ZAINTZA

UPV/EHUren erantzukizuna izango da Mintegiaren kokaleku den Ikergunean segurtasun- eta zaintza-sistema bat ezartzea, egokitzat jotzen duen prozeduraren bitartez.

Enpresa baimendunek zorroztasunez bete eta betearazi beharko dituzte segurtasun arloko arau guztiak.

## 10.- SEGURIDAD Y VIGILANCIA

La UPV/EHU se responsabilizará de la existencia de un sistema de seguridad y vigilancia del Centro en el que se ubica el Vivero, por el procedimiento que considere más conveniente.

Las empresas autorizadas deberán cumplir estrictamente y hacer cumplir todas las normas en materia de seguridad.

## 11.- BETEBEHARRAK ETA MUGAK

### 11.1.- Betebeharrak

Ezarritako tasa ordaintzeaz gainera, eta baimenean beste betebehar batzuk ezar daitezkeela kontuan hartuta, enpresa baimendunak betebehar hauek izango ditu:

a) Garatu beharreko jarduerari dagozkion kargak, baimenak eta zergak edukitzea eta asetzea, bere kontura, indarrean dagoen arautegiaren arabera. Horien kopiak emango dizkio UPV/EHUri. Baimen eta lizentzia horiek eskatzea enpresa baimendunaren erantzukizuna izango da.

b) Nahitaez, UPV/EHU aipatu beharko dute erabilitako publizitate sistemetan, baita proiektuaren edo jardueraren ondorioz sortzen diren euskarri guztietan ere. Logotipoen erabilerari eta gainerako forma alderdiei dagokienez, UPV/EHUren Marka Adierazteko Gidan ezarritakoa bete beharko da.

## 11.- OBLIGACIONES Y LIMITACIONES

### 11.1.- Obligaciones

Además del pago de la tasa establecida, y sin perjuicio de cuantas otras obligaciones pudieran haberse establecido en la autorización, la empresa autorizada está obligada a:

a) Disponer y satisfacer, a su exclusiva costa, las cargas, autorizaciones, impuestos y gravámenes que pesen sobre la actividad a desarrollar, de acuerdo con la normativa vigente, debiendo aportar una copia de las mismas a la UPV/EHU. La solicitud de dichas autorizaciones y licencias es responsabilidad única de la empresa autorizada.

b) Hacer mención específica a la UPV/EHU en cualquiera de los sistemas de publicidad utilizados, así como en todos los soportes que se deriven del proyecto o actividad de la empresa. En cuanto al uso y disposición de los logotipos y demás aspectos de forma, se estará a lo establecido en la Guía de Expresión de Marca de la UPV/EHU.

c) Garatu beharreko jarduerari aplikagarria zaion arautegia betetzea; batez ere, zerga, lan eta gizarte-segurantzaren arloan.

d) Enpresa baimendunak laneko segurtasunari eta osasunari buruzko arautegia bete beharko du. Horretarako, aldez aurretik UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuaren ikuskapena eskatuko du, eta horrek dagozkion gomendioak helaraziko dizkio.

e) UPV/EHUk eskatutako administrazioko eta kontabilitateko dokumentazio guztia aurkeztea, enpresa-ekimena lortzen ari den sendotze-maila egiaztatzeko eta proiektuaren martxa egokia eragotzi dezaketen gabeziak hautemateko.

f) Unibertsitateak eskatutako informazioa ematea.

**11.2.- Mugak:**

Enpresa baimendunari honako muga hauek jarriko zaizkio:

Esleitutako eremuak erabiltzeko eskubidea pertsonala eta besterenezina da; hortaz, ezin dira, ez osorik ez zati batean, berriro alokatu edo utzi, ez behin-behinean ezta doan ere.

Honako jarduera hauek:

- Segurtasun- eta osasun-araudiek debekatutako materiala uztea edo erabiltzea.

- Arriskutsutzat, osasunerako kaltegarritzat edo kaltegarritzat jotzen diren jarduerak, eta gainerako erabiltzaileen jarduera oztopatzen dutenak. Mintegiko eremua erabiltzean, ez dira beste jarduera batzuk eragotziko, ezta salbuespen gisa ere.

- Mintegiaren edozein eremutan baimena ematean aurreikusita ez zeuden jarduerak, moralaren, ordena publikoaren edo ohitura egokien aurkakoak badira, eta adierazpen politikoak, sindikalak eta/edo erlijiosoak antolatzea.

c) Cumplir la normativa aplicable a la actividad que desarrolla, especialmente en materia tributaria, laboral y de seguridad social.

d) En lo referente a higiene y seguridad laboral, la empresa autorizada deberá cumplir la normativa existente, para lo cual previamente deberá solicitar inspección por parte del Servicio de Prevención de la UPV/EHU, que efectuará las recomendaciones pertinentes.

e) Poner a disposición de la UPV/EHU la documentación contable y administrativa que le sea requerida, a los efectos de poder comprobar el nivel de consolidación que va adquiriendo la iniciativa empresarial y detectar los posibles fallos que puedan impedir la buena marcha del proyecto.

f) Facilitar cuanta información le pueda ser solicitada por la Universidad.

**11.2.- Limitaciones:**

A la empresa autorizada le serán de aplicación las siguientes limitaciones:

a) El derecho de uso de los espacios asignados es personal e intransferible, no pudiendo ser subarrendados ni cedidos en todo o en parte, ni siquiera a título gratuito o accidental.

b) Las siguientes actividades:

- El depósito, uso o manipulación de cualquier material no permitido por las normas de seguridad e higiene.

- Aquellas que puedan considerarse peligrosas, insalubres, nocivas o que perturben la actividad de los restantes ocupantes. El uso de cada espacio del Vivero no debe implicar molestia alguna, aunque fuere excepcional, en relación con las actividades proyectadas en el mismo.

- La práctica en cualquier parte del Vivero de actividades no previstas a la hora de conceder la autorización, contrarias a la

- Oro har, enpresa baimendunak ezin izango du, inola ere, Ikastegiko giroa aztoratu zaraten, bibrazioen, usainen, tenperaturen edo gainerako erabiltzaileentzat eragozpenak sor ditzakeen beste jarduera baten bitartez.

moral, al orden público o a las buenas costumbres, y la organización de cualquier tipo de manifestaciones políticas, sindicales y/o religiosas.

- De forma general, la empresa autorizada no debe en forma alguna perturbar el ambiente del Centro mediante ruidos, vibraciones, olores, temperaturas o cualquier otra causa que pueda afectar o producir molestias a los restantes ocupantes.

**12.- UNIBERTSITATEAREN JARRAIPENA ETA IKUSKAPENA**

Sei hilabetean behin jarraipena egingo zaie Mintegiko eremuen erabilera-baimenei. Horretarako, enpresa baimendunak jarduera-txosten bat eman beharko du, eta UPV/EHUk izendatutako pertsonen aurrean defendatu beharko. UPV/EHUk ez ditu aipatutako txostenean, bileretan, etab, jasotako datuak eta informazioa zabalduko, eta dokumentuak zaintzeko konpromisoa hartuko du.

Era berean, esleitutako eremuen erabilera eta egoera egiaztatze aldera, UPV/EHUk horien ikuskaritza egiteko eskumena izango du, eta enpresa esleipendunak Unibertsitateak xede horrekin bultzatutako bisitak baimenduko ditu.

**12.- SEGUIMIENTO E INSPECCIÓN UNIVERSITARIA**

Semestralmente se realizará el seguimiento de la autorización de uso de espacios del Vivero. Para ello, la empresa autorizada deberá entregar un informe de actividad para su defensa en el correspondiente encuentro con las personas designadas por la UPV/EHU. La UPV/EHU no revelará los datos e informaciones que se contengan en los mencionados informes, reuniones, etc., comprometiéndose a custodiar los documentos.

Asimismo, para comprobar el uso y estado de los espacios asignados, la UPV/EHU se reserva la facultad de inspeccionar los mismos, debiendo la empresa autorizada permitir las visitas que la Universidad promueva a tal efecto.

**13.- EGONALDIAREN LUZAPENA**

Egonaldia luzatu nahi duten enpresa baimendunek, ezarritako gehieneko epea agortu ez bazaie, idatziz eskatu behar dute luzapena, baimena amaitu baino hilabete lehenago gutxienez.

UPV/EHUk izango du luzapenak emateari buruzko erabakia hartzeko ahalmena, eta horretarako kontuan hartuko ditu 12. puntuan aipatutako jarraipen-bilerak eta -txostenak. Nolanahi ere, luzapena emateko, ezinbestekoa izango da enpresak egunean edukitzea baimentzeko erabakiaren arabera dagozkion betebeharrak.

**13.- PRÓRROGA DE LA ESTANCIA**

Las empresas autorizadas que deseen prorrogar su estancia, y siempre y cuando no hayan agotado el período máximo establecido, deberán solicitarlo por escrito con una antelación mínima de un mes a la finalización de la autorización.

La decisión sobre la concesión de cada una de las prórrogas será potestad de la UPV/EHU, que se basará en los informes y encuentros de seguimiento a los que se refiere el punto 12. No obstante, para la concesión de la misma, será imprescindible que la empresa esté al corriente en el cumplimiento de las obligaciones que le corresponden conforme la resolución de autorización.

**14.- ESLEITUTAKO EREMUA UZTEA**

**14.- ABANDONO DEL ESPACIO ASIGNADO**

Baimena agortu ondoren, horren zergatia alde batera utzita, enpresak esleitutako eremua utzi, eta Unibertsitateari itzuli beharko dio nahitaez, hilabeteko epean eta eman zitzaion egoera berean.

Extinguida la autorización, y con independencia de la causa por la que se extinga, la empresa estará obligada a abandonar y devolver a la Universidad el espacio asignado en el plazo máximo de un mes, y en el mismo estado en el que le fue entregado.

Halaber, eremua hutsik eta ezer gabe itzuli beharko da. Hala, enpresa baimendunak itzultzeko unean bertan utzitako ondasun guztiei uko egiten diela eta UPV/EHUri ematen dizkiola ulertuko da.

Asimismo, el espacio deberá devolverse libre y totalmente desocupado, entendiéndose que la empresa autorizada renuncia, a favor de la UPV/EHU, a la propiedad y posesión, de cuantos bienes quedaran en el mismo en el momento de la devolución.

Baimena iraungitzeak ez dio, inola ere, kalte-ordainik jasotzeko eskubidea emango enpresa baimendunari, eta esleitutako eremua utzi eta UPV/EHUren esku uzten ez duen bitartean, dagokion tasa ordaindu beharko du erabiltzen ariko balitz bezala.

En ningún caso la extinción de la autorización comportará derecho de indemnización alguno a favor de la empresa autorizada, y en tanto la misma no abandone y ponga a disposición de la UPV/EHU el espacio asignado, deberá abonar la tasa correspondiente como si lo estuviera usando efectivamente.

Era berean, Mintegia uztera derrigortzen den epea bete ezean, enpresak, dagozkion tasez gainera, hirurogei euro ordaindu beharko dizkio eguneko (60 €/eguna) UPV/EHUri zigor-klausularen kontzeptupean, eremua utzi arte. Era berean, eragin ditzakeen kalte-galera guztien erantzulea izango da.

Asimismo, la empresa que obligada a abandonar el Vivero no lo haga en el plazo establecido, deberá abonar a la UPV/EHU, además de la tasa correspondiente, y hasta que se produzca el efectivo desalojo, la cantidad de sesenta euros diarios (60 €/día) en concepto de cláusula penal. Igualmente deberá responder de cuantos daños y perjuicios ocasione.

Enpresa baimendunak ez du, inola ere, egonaldian lokaletan egindako hobekuntzen ordainik jasoko, eta hobekuntza horiek UPV/EHUren onurarako utzi ahal izateko, haren berariazko baimena eduki beharko du.

En ningún caso la empresa autorizada recibirá compensación alguna por las mejoras que haya realizado en los locales durante su estancia, y para poder dejar esas mejoras en beneficio de la UPV/EHU, deberá contar con la aprobación expresa por parte de ésta.

## 15.- ERABILERA-BAIMENA IRAUNGITZEA

## 15.- EXTINCIÓN DE LA AUTORIZACIÓN DE USO

Baimena iraungi egingo da EOLren 76. artikuluan aipatutako kausa orokorren eraginez, eta zehazki:

Finkatutako epea agortzean.

Enpresa baimenduna uko egitean. Enpresak idatziz jakinarazi beharko dio uko egitea Unibertsitateari, gutxienez 30 egun lehenago.

Jarduera behin betiko amaitzean.

La autorización quedará extinguida por las **causas** generales a las que se refiere el artículo 76 LPE, y en concreto:

a) Por expiración del plazo acordado.

b) Por renuncia de la empresa autorizada. La empresa deberá comunicar por escrito su renuncia a la Universidad con una antelación mínima de 30 días.

c) Por el cese definitivo de la actividad.

Enpresa baimendunaren nortasun juridikoa iraungitzean.

Enpresa baimendunaren nortasun juridikoa aldatzean, bat-egite, xurgatze edo banaketa baten eraginez.

UPV/EHUk alde bakarreko baliogabetzea egitean, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bateginaren 80.3. artikuluan ezarritakoaren arabera. Hala, ***baliogabetze hori edozein unetan egin daiteke interes publikoko arrazoiak direla medio, kalte-ordainetarako eskubiderik sortu gabe, dela gerora onartu diren baldintza orokorrekin bateraezinak direlako, dela herri-jabarian kalteak sortzen dituztelako, dela herri-jabari hori interes publikoko beste jarduera batzuetan erabiltzeko oztopo direlako, edo dela ondasunaren erabilera edo loturik duen xedea kaltetzen duelako***.

Erabaki baten bidez. Horretarako kausak honako hauek dira:

Bi aldeen arteko adostasuna.

Ezarritako tasa ez ordaintzea, bi hilabete jarraituetan edo lau hilabete txandakatuetan.

Eremuari beste erabilera bat ematea, esleipenean ageri ez dena.

Esleitutako eremua alokatzea edo uztea, osorik edo zatika, behin-behinean edo doan.

Instalazioa okupatzeko ezarritako epeak ez betetzea.

Jarduera modu ez-jarraituan egitea.

Aurkeztu beharreko dokumentuak faltsutzea, horrek ekar ditzakeen erantzukizun penalak alde batera utzita.

Erabilera-baimenetik eratorritako beste betebeharren bat ez betetzea.

d) Por extinción de la personalidad jurídica de la empresa autorizada.

e) Por la transmisión o modificación, por fusión, absorción o escisión, de la personalidad jurídica de la empresa autorizada.

f) Por revocación unilateral de la autorización por parte de la UPV/EHU, revocación que, de acuerdo con lo establecido en el artículo 80.3º del Texto Refundido de la Ley de Patrimonio de Euskadi, ***podrá producirse en cualquier momento por razones de interés público, sin generar derecho a indemnización, cuando resulten incompatible con las condiciones generales aprobadas con posterioridad, produzcan daños en el dominio público, impidan su utilización para actividades de mayor interés público o menoscaben el uso general o el destino al que se encuentre afectado el bien***.

g) Por resolución; son causas de resolución:

- El mutuo acuerdo de las partes.
- La falta de pago de la tasa establecida durante dos meses consecutivos o cuatro alternados.
- Destinar el espacio a una actividad diferente para la que ha sido asignado.
- Subarrendar o ceder en todo o en parte, a título gratuito o accidental el espacio asignado.
- El incumplimiento de los plazos establecidos para la ocupación e instalación.
- El ejercicio de la actividad de forma no continuada.
- La falsedad en la documentación que haya de ser presentada, sin perjuicio de las responsabilidades penales que ello pueda suponer.

- El incumplimiento de cualquier otra obligación derivada de la autorización de uso.